



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

www.araba.eus

Oro har, pieza guztiei banan-banan jarri behar zaie sigla, honela: SIGLA.esku\_hartze\_urtea.UE edo koadroa.inventario\_zk.

Honako kasu hauetan bakarrik erabil daiteke inventario zenbaki bera siglan:

- 1.- Zeramika, hezur, litiko eta abarren zatiak oso txikiak badira eta lekurik ez dagoelako ezin bazaie sigla jarri. Halakoetan, zeharka jarriko zaie sigla; hau da, etiketan.
- 2.- Faunaren hezur hondarrak. Espezialista batek sailkatu behar ez baditu, zati guztiei inventario zenbaki bera ematea gomendatzen da.

**Inventarioko "Oinarrizko tipologia" eta "Tipologia orokorra" eremuak betetzeko, web orrira igotako tesaurioak (termino hiztegiak) erabili behar dira.** Baliteke piezaren bat dauden kategorietara ez egokitzea; halakoetan, museora idatz dezakezue, horri buruz hitz egiteko eta kategoria berri bat sortzeko.

**Saiatu beti termino edota hitz bera ipintzen objektu berdinei buruz ari zarenean.** Ez da "Tipologia espezifiko" tesaurorik sortu, oso zabala izan baitaiteke. Eremu honetan, pieza zer den adierazi behar da: katilu bat, edalontzi bat, estalki bat, iltze bat, saihets bat, tibia bat... Erromatar garaiko edo Erdi Aroko zeramiken kasuan, forma, talde edo ekoizpen mota jakin batekoak badira, hori ere adierazi behar da. Adibidez: zeramika engobatua, DSP, TSH, TSH 35 katilua, TSH 33 edalontzia, 1-V pitxerra... Zehaztu ezin bada, ontzi irekia, itxia edo zehaztugabea den adierazi behar da.

Oro har, zer pieza mota den zehaztu ezin bada, zehaztugabea dela adierazi behar da.

**Inventarioa egiten duen pertsonak uste badu inventarioa osatzeko datu gehigarriak gehitu behar direla, "Beste batzuk" izeneko zutabe bat sor dezake, informazio hori jasotzeko.**